

Getxo >MEETING<



Urriak 29

**Zure blogaren edo sareen edukiri bizitza ematea erraza da,
entzuten baldin badakizu**

Sareetarako edukiei buruzko Getxo MEETING saioak honako helburu hau zeukan: zure blogarekin edo sare sozialekin topo egiten duten pertsonak euren buruari egiten dizkioten galderak asmatzea.

Egin ziren hausnarketak azalduko dizkizugu, sare sozialetan idaztea ez dadin horren zaila izan.

Hona hemen jorratzea beti ondo datorren zenbait gai:

/ Egiten zabiltzan proiektuak

/ Amaitutako proiektuak

/ Jardunbide egokiak, adibide errealekin

/ Profesionalki inspiratzen zaituzten gaiak

/ Zure produktu edo zerbitzuren bat erakusten duen adibide bat

/ Jendeak bere buruari egiten dizkion ohiko galderak, FAQ deritzenak

/ Zure hartzaileentzako inspirazioa

/ Zure jarduerari lotuta dauden bi kontzeptuen arteko desberdintasunak

/ Funtzionatzen duen truku bat

/ Zure sektoreari edo jarduerari lotuta dagoen gai zail bati aurre egiteko aholku zehatzak, zure hartzaileei zuzendutakoak

/ Zure produktu edo zerbitzuei buruzko informazio berria

/ Egin behar ez zenituzkeen gauzak, baldin eta...

/ Zure sektoreari edo jarduerari lotutako data garrantzitsuak

Halaber, ideiarik gabe geratzen zarenean zenbait kontu izan ditzakezu kontuan:

/ Begien bistakoa ez da beti agerikoa: Gauza sinpleei buruz ere idatzi ditzakezu argitalpenak; esate baterako, zure enpresaren kokapena argitalpen baten gai nagusia izan daiteke. Agian argi dago zuretzat, baina testu batean garatuz gero lagungarria izan daiteke jendeak ulertu dezan zein irisgarri den zure lokala, jakin dezan posible ote den autoan, bizikletan edo garraio publikoan joatea... mentalki zugana heltzen lagunduko die.

/ Ez dago txarto gauzak errepikatzea, baldin eta beste ikuspuntu batetik heltzen badiezu. Jada jorratu duzun gai bat berriro landu edo bideratu daiteke, alderdi jakin bat nabarmenduz.

/ Zure hartzaileentzat nekagarria da gauzak saltzen ahalegintzea eta soilik zeure buruari buruz hitz egitea.

/ Jendeak azalpenak behar ditu; hortaz, oharkabean joan ohi diren galderak entzun eta idatzi: elkarrizketa batean jendeak egin ohi dizkizun galderak. Pertsona jakin horrek galdera hori badu, baliteke pertsona gehiagok gauza bera pentsatzea. Esate baterako: zure enpresaren izena beste baten izenaren antzekoa da, nahasgarria al da? Argitalpen bat idatzi dezakezu eta gaia naturaltasunez jorratu.

/ Egunerokotasunean gertatzen diren gauzak. Kendu ezazu burutik "saldu-saldu" helburua gauzatzeko ahalegina, jendeak jarrera hori baztertu dezakeelako. Saltzeko modu tangentialagoa istorioak eta eguneroko gauzak kontatzea da; lagungarria izango da jendeak ulertu dezan zer egiten duzun, eta azaltzeko modua ez da horren erasokorra izango, aldiz, atseginagoa izango da.



/ Baina adi, normalean ez baduzu erakusten zer egiten duzun eta oso zeharkako gaiak jorratzen badituzu beti, sasoia da zure hartzaileek hobeto jakin dezaten nor zaren eta zertan zabiltzan, ezta? Oreka bilatu ezazu.